



**GETXO KIROLAKEK EMANDAKO DIRU-
LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOARI BURUZKO
AZALPEN-GIDA KIROL-KLUBENTZAT**

SARRERA

Dokumentu honen bitartez, zenbait alderdi azaldu nahi dira **Getxo Kirolakek** emandako diru-laguntzak jasotzen dituzten Getxoko kirol-klubek kontuan izateko jasotako laguntzak justifikatzerakoan. Diru-laguntzak justifikatzeko dokumentu honetan adierazitakoa diru-laguntza publikoak arautzen dituzten era guztietako araudi-xedapenetan (orokorrak zein udal-mailakoak) aurreikusitakoa alde batera utzi gabe ulertzen da.

GAI OROKORRAK

- **“Diru-laguntza”** gisa ulertzen da Getxo Kirolakek udalerriko kirol-kluben alde egindako diruzko xedapena, erakunde onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egindakoa, baldin eta horrek onura publikokotzat edo gizarte-interesekotzat jotzen den kirol-arloko helburu, proiektu edo jarduera jakin bat betetzen badu.
- Erakunde onuradunek (kirol-klubek) organo-emailearen aurrean (Getxo Kirolak) **“justifikatu”** beharko dute jasotako funtsen aplikazioa. Betebehar hori betetzen ez bada, diru-laguntza itzuli behar izateko aukera egongo da.
- Getxo Kirolakek diru-laguntzak eskatzeko, emateko eta justifikatzeko prozedura guztietan hainbat **“xedapen”** aplikatu ahal izango ditu, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira:
 - Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen ordenantza orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.
 - Diru-laguntzen inguruko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
 - Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen inguruko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
 - Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.
 - Getxo Kirolakek diru-laguntzak emateko argitaratzen dituen deialdi espezifikoak.
- Getxo Kirolaken diru-laguntza jasotzen duten kirol-klubek **“betebehar”** hauek dituzte:
 - ⇒ Helburua betetzea, proiektua gauzatzea eta diru-laguntzak emateko oinarri den jarduera burutzea.
 - ⇒ Betekizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera egin dela eta diru-laguntza ematearen helburuak bete direla justifikatzea.

- ⇒ Finantza aldetik, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduerak onartzea, eskatutako informazio guztia emanaz.
- ⇒ Getxo Kirolaki jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortu izana.
- ⇒ Diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.
- ⇒ Kirol-klub onuradunari aplikatu dakioken legeria sektorialak eskatutako liburuak eta gainerako dokumentuak edukitzea, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzearen. Hauek kirol-klubak direnez, liburuak honako hauek lirateke: Bazkideen liburua, Akta-liburua eta Kontuen Liburuak.
- ⇒ Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea (4 urtez), egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduerak egin ahal izateko.
- ⇒ Getxo Kirolak kolaboratzailea dela aipatzea, horrek inolako publizitate-betebeharririk eragin gabe.
- ⇒ Getxo Kirolakek euskara sustatzeko ezarritako neurriak betetzea, hala badagokio.
- ⇒ Hizkuntza ez-sexista erabiltzea, Getxo Kirolakek ezarritako irizpideen arabera, edo berdintasunaren arloan finkatuta duen beste edozein.
- Diru-laguntza duen jardueran aurkeztutako gastuaren %100 justifikatu behar da eta ez soilik emandako kopuruaren zenbatekoa.
- Diruz lagundutako jarduera egitea betebeharrak besterenezina da.
- Diru-laguntzak eskatzeko "**prozedurei**" dagokienean, kirol-klubak ondorengoak izan behar ditu kontuan:
 - Deialdian agertzen diren eskaera eta eranskinak behar bezala beteta aurkeztea eta nahitaezko dokumentazioa ere aurkeztea.
 - Eskaerak deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztea.
 - Eskaerak telematikoki aurkeztea; beraz, kirol-klubek ziurtagiri digitala izan behar dute dagozkien kudeaketak egiteko.

- Getxo Kirolakek eskaeran akatsak ikusten baditu eta akats horiek zuzentzeko modukoak badira, 10 egun balioduneko epea emango da dagokion guztia aurkezteko edota zuzentzeko.
- Diru-laguntzak emateko ebazpenak dagokion justifikazioa egitea eskatzen dio erakunde onuradunari, Getxo Kirolakek ezarrita dituen epeen barruan.
- Aurkeztutako eskaerak birformulatzea: diru-laguntza moduan eman beharreko diru-kopurua eskatutakoarekin bat ez datorrenean aurkeztutako programa guztien balorazioa egin ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

- **Diruz lagundutako jardueraren izaerari** ez bairik gabe **erantzuten diotenak**, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak. Gastu batek diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuteko, honako hauek hartu behar dira kontuan: (i) **gastu-mota** eta (ii) **diru-laguntzaren lerroa**. Egoera ezberdinak gerta daitezke:
 - Getxo Kirolakek diruz lagundutako jarduera bakar baten izaerari ere erantzuten ez dioten gastuak.
 - Getxo Kirolakek diruz lagundutako jardueren lerroei kasu guztietan erantzuten dieten gastuak.
 - Getxo Kirolakek diruz lagundutako jardueren lerro batzuei kasu batzuetan erantzuten dieten gastuak.

Gastu-mota	Diru-laguntzaren lerroa
<ul style="list-style-type: none"> ○ Federazio-lizentziak ○ Federazio-kuotak (arbitroak, etab.) ○ Joan-etorriak ○ Entrenatzaileak edo monitoreak ○ Kirol-materiala ○ Instalazioak erreserbatzea ○ Aseguruak ○ Bestelakoak 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Oinarrizko kirolaren garapena ○ Lehiaketa-jarduerak eta errendimenduko kirolariak ○ Bat-batekoak ○ Ekitaldiak antolatzea ○ Bertako kirola sustatzea ○ Muturreko kirolean parte hartzea ○ Udalerriko herri-jaietako kirol-jarduerak

- Diru-laguntza izan dezaketen gastuak eskuratzeko kostua ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

- Egindako gastutzat hartuko da justifikazio-epea amaitu aurretik benetan ordaindutakoa eta diru-laguntza emateko denboraldian egindako gastu batekin bat datorrena.
- Diru-laguntza izan dezakeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako¹ ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko dira gutxienez, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik: Hauek izango dira salbuespenak: (i) ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez izatea horiek egiten, ematen edo hornitzen dituzten behar adina erakunde; (ii) gastua diru-laguntzaren aurretik egin izana. Aurkeztutako eskaintzen artean hautatzeko, eraginkortasunaren eta ekonomiaren inguruko irizpideak hartuko dira kontuan, eta memorian berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez bada.
- Diru-laguntzen deialdian ezartzen badira: ondasun inbentariagarriak² eskuratzen edo hobetzen badira, onuradunak ondasunak diru-laguntza emandako helburu zehatzerako noiz bideratu beharko dituen zehaztuko da. Epe hori bost urtekoa izango da gutxienez ondasunak erregistro publikoan inskriba daitezkeenean, eta bi urtekoa gainerako ondasunen kasuan. Amortizazio-gastua diruz lagundu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Diru-laguntzek ondasunak erosten lagundu ez izana.
 - b) Amortizazioa oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera kalkulatzeko.
 - c) Kostua soilik diru-laguntza izan dezakeen denboraldikoa izatea.
- Diru-laguntza eskura ezin dezaketen gastuak edo kontzeptuak:
 - Banku-kontuetako interes zordunak.
 - Interesak, errekarguak eta zehapen administratiboak eta penalak.
 - Prozedura judizialen gastuak.
 - Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean (adibidez, BEZa).
 - Publizitate- eta propaganda-materiala.
 - Harreman publikoen gastuak.
 - Argitalpen propioak (urtekaria, aldizkariak, etab.).

¹ 40.000 euro obretarako eta 15.000 euro zerbitzu eta beste kontratu batzuetarako.

² Inbentariagarritzat jotzen dira balorazio independentea izan dezaketen ondasun guztiak, ez suntsikorrak (erabilerarekin agortzen direnak) eta balio-bizitza ekitaldi ekonomiko batetik gorakoa dutenak.

- Salmentarako diren ondasunak erostea.
 - Gastu sozialak.
 - Arreta pertsonalak.
 - Galetako edo ospakizunetako gastuak.
 - Kontratuan aurreikusi gabeko aparteko haborokinak.
- Diru-laguntzak justifikatzeko bi sistema:
 - Zenbatekoa 36.000 eurotik beherakoa denean, justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztuta justifika daiteke.
 - Zenbatekoa 36.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada, justifikazio-kontua (arrunta) aurkeztuta justifika daiteke, gastuen egiaztatzearekin.

Justifikazio-kontuaren (arrunta) bidez justifikatzen bada, gastuen egiaztatzearekin	Justifikazio-kontu sinplifikatuaren bidez justifikatzen bada
<p>Egindako jardueren eta lortutako emaitzen inguruko memoria.</p> <p>Egindako jarduerak justifikatzeko memoria ekonomikoa honako hauekin:</p> <p>a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen sailkapen-zerrenda, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazio, zenbateko, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data eta guzti. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.</p> <p>b) Zerrendan jasotako fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa.</p> <p>c) Tasatzaile independentearen ziurtagiria, behar bezala egiaztatua eta dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, ondasun higiezinak eskuratu badira.</p> <p>d) Kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, behar izanez gero, diru-</p>	<p>Egindako jardueren eta lortutako emaitzen inguruko memoria.</p> <p>Jardueraren gastuen eta inbertsioen sailkapen-zerrenda, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazio, zenbateko, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data eta guzti. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.</p> <p>Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda, zenbateko eta jatorri eta guzti.</p> <p>Hala behar izanez gero, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, eta horietatik eratorritako interesena ere bai.</p> <p>Nolanahi ere, langileen gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, deialdiak, emakida-ebazpenak edo hitzarmenak hala agintzen duenean, eta gastuen justifikazioa (emandako zenbatekoaren %10ekoa gutxienez).</p> <p>Getxo Kirolakek, oinarri arautzaileetan adosten diren laginketa-tekniken bidez, egokitzen dituen egiaztatzearekin egiaztatutako diru-laguntza behar</p>

<p>laguntzaren oinarri arautzaileek oroharreko zenbatekoarekin konpentsatzea aurreikusi duten kasuetan izan ezik, justifikatu beharrik gabe.</p> <p>e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda, zenbateko eta jatorri eta guzti.</p> <p>f) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuta, onuradunak eskatu beharreko beste hiru aurrekontuak.</p> <p>g) Hala behar izanez gero, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinen kasuan, eta horietatik eratorritako interesena ere bai.</p>	<p>bezala aplikatu dela erakusten duten arrazoizko ebidentziak lortu ahal izateko. Horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko.</p>
--	--

- Gastuak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, jatorrizkoan edo fotokopia konpultsatuan, azken kasu horretan hala ezarri bada oinarri arautzaileetan. Oinarri arautzaileek horrela ezartzen badute, aurkeztutako jatorrizko egiaztagiriak zigilu batekin markatuko dira, eta, bertan, zer diru-laguntzatarako aurkeztu diren adieraziko da eta egiaztagiriaren zenbatekoa diru-laguntzari osorik edo partzialki egozten zaion.
- Fakturek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Faktura-zenbakia eta, hala badagokio, seriea.
 - Espedizio-eguna.
 - Igorlearen identifikazio-datuak (izen-abizenak, sozietate-izena, IFZ eta helbidea).
 - Hartzailearen identifikazio-datuak (izen-abizenak, sozietate-izena, IFZ eta helbidea).
 - Eragiketaren deskribapen zehatza eta prezio unitarioa eta zenbateko osoa. Dagokion BEZa islatuko da eta edozein deskontu edo beherapen aplikatu bada, hori ere bai.
 - Eragiketaren data, espedizio-datarekin bat ez datorrenean.
 - PFEZ dela-eta atxikitako zenbatekoa, hala badagokio, edo salbuespenaren arrazoia deskribapena, halakorik izanez gero.

- Faktura sinplifikatua egin ahal izango da legez aitortutako eragiketetan³. Nahitaezkoak izan daitezkeen datuak edo baldintzak alde batera utzi gabe, faktura sinplifikatu guztietan ondorengo informazioa jasoko da:
 - Obligaziodunaren IFZ, izen-abizenak edo sozietatearen izena, espedizio-egunean.
 - Faktura sinplifikatuaren espedizio-eguna eta eragiketa egin den eguna (edo ordainketa aurreratua jasotako eguna, hala badagokio), desberdinak badira.
 - Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Zenbaketa korrelatiboa izango da serie bakoitzaren barruan.
 - Emandako ondasun- edo zerbitzu-moten identifikazioa.
 - Eragiketa bakoitzaren zerga-oinarria, faktura berean zerga-tasa ezberdinak baldin badaude.
 - Zerga-tasa eta, aukeran "BEZa barne" adierazpena.
 - Kontraprestazio osoa.

▪ **Tradizionalki diru-laguntza izan dezaketen gastuen adibideak:**

BOLUNTARIOEN GASTUAK⁴	Boluntariotzari buruzko legeriak ezarritakoaren arabera, boluntarioek inolako kontraprestazio
---	---

³ Faktura sinplifikatua egin ahal izango da, jaulkitzaileak hala hautatzen badu, fakturatu beharreko zenbatekoa 400 eurotik beherakoa bada, BEZ barne. Gainera, faktura sinplifikatua egin ahal izango da, 3.000 eurotik gorakoa ez denean, BEZ barne, jarraian deskribatzen diren eragiketetan:

- Txikizkako salmentak, baita entregatutako produktuen fabrikatzaileek edo elaboratzaileek egindakoak ere.
- Salmentak edo anbulantziko zerbitzuak.
- Kontsumitzailearen etxez etxeko salmentak edo zerbitzuak.
- Pertsonen eta haien ekipajeen garraioak.
- Jatetxeek, tabernek, kafetegiek, hortxategiek, txokolategiek eta antzeko establezimenduek ematen dituzten ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak nahiz bertan kontsumitzeko edarien edo janarien hornidura.
- Kirol-instalazioen erabilera.
- Ibilgailuak aparkatzea.
- Ordainpeko autobideak erabiltzea.

⁴ Boluntariotzat ulertzen da pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jardueramultzoa, baldin eta honako baldintza hauetan egiten badira: a) Modu desinteresatuan eta izaera solidarioarekin; b) Borondatez eta askatasunez, lan-harreman, funtzionario edo merkataritzako harremanaren edo betebeharrak pertsonal edo juridiko baten kausarik gabe; c) Irabazi-asmorik gabeko erakunde bidez, eta programa edo proiektu zehatzen arabera; d) **Ordainsari ekonomikorik gabe;** e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inola ere ordezkatu gabe. Legearen ondorioetarako, ez dira boluntariotzat hartuko borondatezko jarduerak, bat-batekoak, noizbehinkakoak edo

	<p>ekonomikorik jaso gabe egingo dituzte beren jarduerak. Hala ere, eskubidea izango dute borondatezko jardueraren bidez sortutako gastu guztiak haiei ordaintzeko, eta gastu horiek diru-laguntzari egotzi ahal izango zaizkio. Justifikatzeko, <u>gastuen justifikazio/konpentsazio orriak</u> erabiliko dira.</p>
<p>LANGILEEN GASTUAK⁵</p>	<p>Getxoko kirol-klubekin loturiko pertsonen lan-harremanaren bidez jasotako ordainsariak; hots, honako hauei dagozkienak: entrenatzaileak, monitorea, kirolariak, zuzendariak, kudeatzaileak, zuzendari teknikoak, eta abar.</p> <p>Justifikazioa egingo da jasotako likidoagatik nominan egindako likidazioaren bidez. Justifikatzeko unean, kirol-klubak dagozkion zergak ordaindu eta gizarte-aseguruak likidatu baditu, soldata gordinaren bidez justifikatu ahal izango du. Kaleratzeagatik kalte-ordainak justifikatzeko aukera ez da sartzen, izan itunduak edo epai judizial bidezkoak.</p> <p>PFEZ atxikipenak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari egindako ordainketak justifikatzeko, egindako diru-sarreraren jatorrizko ordainketa-gutunak aurkeztu beharko dira, eta, bi kasuetan, sartutako kopuruak pertsonen arabera banatu direla jasotzen duen zerrenda erantsiko da.</p> <p>Kirol-klubetako langileek egindako aparteko lanen gaineko konpentsazioak nominan sartu behar dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alegia, honako hauen bidez justifikatu behar dira: langileen nominen ordainagiriak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatua. • Bertako langileen Gizarte Segurantzako kotizazioak egiaztatzen dituzten buletinen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua (TC1 eta TC2). • Nominak ordaindu izanaren eta kotizazioak

erakundeetatik kanpo emandakoak direnak, familia-arrazoiengatik, adiskidetasunagatik, onginahiagatik edo auzotasun onagatik gauzatuak.

⁵ Kirolean besteren konturako lan-jarduera izango da, erregularitasunez ezarritako harremanaren arabera, borondatez kirola egiten dutenek egiten dutena kirol-klub edo -erakunde baten kontura eta haren antolaketa- eta zuzendaritza-eremuaren barruan, ordainsari baten truke, hori handiagoa edo txikiagoa izan, eta **kirol-jardueratik eratorritako gastuen konpentsazioa gainditzen duena**. Horren barruan honako hauek sartzen dira: kirolariak, teknikariak - entrenatzaileak, monitorea, kirol-klubetako laguntzaileak, zuzendariak eta abar.

	<p>ordaindu izanaren frogagiriak.</p> <p><i>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren inguruko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluko 31. atala: "Errenta hauek salbuetsita egongo dira: (...) 31. Monitore, arbitro, epaile, ordezkari, kirol-arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen funtzioak betetzeagatik jasotako etekinak Eskola Kirolaren Programan edo Bizkaiko Foru Aldundiak baimendutako eskola-adineko kirolarientzako jardueretan edo lurraldeko kirol-federazioen jardueretan, lanbide arteko gutxieneko soldataren mugarekin⁶".</i></p>
<p>ZERBITZU PROFESIONALAK</p>	<p>Profesional independenteek edo enpresek beren baliabideekin emandako zerbitzuak dira.</p> <p>Emandako zerbitzu bakoitza banaka justifikatu beharko da dagokion fakturarekin; fakturan, legez ezarritako baldintzak jaso beharko dira, eta PFEZ atxikipenaren ehunekoa eta BEZ portzentajea agertuko dira. Zenbateko gordinean justifikatu ahal izango da, BEZ kengarria sartu gabe, eta emandako zerbitzuaren ordainagiriarekin batera, PFEZaren ordainketa-gutuna aurkeztu beharko da.</p> <p>Enpresei zerbitzu profesionalak emateagatik egindako ordainketak bakarrik onartuko dira, enpresek fakturatutako zerbitzuak kirol-klubaren helburu sozialarekin bat datozenean.</p>
<p>EROSKETAK ETA HORNIDURAK</p>	<p>Kirol-klubek beren kirol-jarduera garatzeko egindako salgaien erosketak (batez ere kirol-materialak) eta jarduera garatzeko kontratatutako hornidura-zerbitzuak.</p> <p>Erosketen kasuan, fakturaren bidez justifikatuko da eta, hornidurei dagokienean, faktura edo banku-helbideratzearen egiaztagiri bidez.</p> <p>Kirol-klubaren eta beste erakunde baten artean babesletza kontraturen bat egonez gero, bien artean egindako erosketak, babesletzarekin finantzaturikoak, diru-laguntzarik izan ez dezaketen gastutzat hartuko dira.</p>

⁶ 2023rako LGS eguneko 36 €-koa da, hilabetean 1.080 €, urtean 15.120 €. LGS 14 ordainsaritarako zenbatzen da; beraz, ordainsariak hainbanatuta dituzten enpleguetan, LGS 1.260 €-koa izango da hilabetean.

<p>JOAN-ETORRIAK⁷</p>	<p>Kirolarien, teknikarien eta kirol-klubeko gobernu-organoetako gainerako langileen garraioaren, mantenuaren eta ostatuaren inguruko gastuak, betiere diruz lagundutako jarduerak garatzean beren kontura eta mendekotasun-harremanean jarduten bada.</p> <p>Kirol-klubari zerbitzuak ematen dizkioten profesional independenteen joan-etorriak horien kontura izango dira, kontratuan bestelakorik esaten ez bada.</p> <p>Justifikatzeko, jatorrizko dokumentuak beharko dira (fakturak, faktura sinplifikatuak eta garraio-txartelak), eta, nolana ere, honako hauek agertuko dira: zein lekutara bidaiatu den, bidaia zein egunetan burutu den eta bidaiarien zerrenda eta funtzioa. Bidaia bidaia-agentzia batek kudeatu badu, emandako zerbitzuen faktura zehatza ez ezik, horren ordainketaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira.</p>
<p>BIDAIA-GASTUAK</p>	<p>Edozein garraibide erabiltzeagatik ordaindutako zenbatekoa. Horri dagokionean, kilometrajeak benetako distantzietara egokitu beharko dira, jatorria eta helmuga fakturretan zehaztuta. Horretarako, Michelin bidea erabiliko dugu erreferentzia moduan. Bestalde, justifikatutako gastu gisa soilik ordainduko da kilometroko 0,29 euro gehienez.</p>
<p>GASOLINA-GASTUAK</p>	<p>Txartelaren eta memoriaren bidez justifikatu beharko dira, eta memorian, joan-etorriaren data, arrazoia eta jatorria eta helmuga agertuko dira. Soilik ordainduko dira kirol-klubaren berezko eginkizunetan egindako gastuak, betiere bidaia-gastuak ordaindu ez badira.</p>
<p>OTORDU-GASTUAK</p>	<p>Gosari, bazkari eta afari gisa sortutako gastuen truke ordaintzen den zenbatekoa, betiere hotelaren prezioan sartuta ez badaude.</p> <p>Diru-laguntza izan dezakeen gehieneko zenbatekoa ezarriko da, aurretik justifikatuta: 7 euro/pertsona/eguneko gosariarengatik eta 22</p>

⁷ Berariaz jasota uzten da "dietak" izeneko kontzeptua ez dela aurreikusten diru-laguntzak justifikatzeko. Kirol-klub bateko kide bati egindako edozein ordainketa honako hauen ondorio izan daiteke soilik: besteren konturako lan-kontratazioaren bidez ordaintzea, autonomo edo profesinoal gisa beren kontura emandako zerbitzu profesionalengatik ordaintzea edo jarduerak gida honetan aurreikusitako baldintzetan sortutako gastuak konpentsatzea, dokumentu honetan ezarritako muga eta baldintzekin.

	<p>euro/pertsona/eguneko bazkari eta/edo afariarengatik.</p> <p>Soilik balioko dute ekitaldi edo lehiaketetara joan behar dutenen kasuan, bizilekutik kanpo gaua igaro edo egon behar badute.</p> <p>Jatetxeen fakturretan, bertaratutakoen identitatea eta kirol-klubean duten postua agertu beharko dira. Ez dira otordu-gastutzat hartuko gosaria, bazkaria eta afaria ez diren kontsumoak; hots, aperitiboak, kopak, tabakoa, etab.</p> <p>Gastuak likidatzeko orriak erabiliko dira.</p>
<p>FEDERAZIO-ZENBATEKOEN GASTUAK</p>	<p>Kirol-klubak egindako gastuak edo ordainketak, haren kirol-federazioen jarduera edo lehiaketetan parte hartzeko finkatutako eskubide edo tasei dagozkienak.</p> <p>Kontzeptu horien artean honako hauek sar daitezke: federazio-lizentziak; kirol-probetan izena emateko kuotak; arbitraje-kuotak; kirol-probak antolatzeko kanona; kirol-federazio batek ezarritako prezioak, kirol-klubek eta horien kideek ordaindu beharrekoak, horren xedeko kirol-jarduera egiteko.</p> <p>Justifikatzeko, kirol-federazioak (nazioarteko federazioa, Espainiako federazioa, Euskadiko federazioa edo Bizkaiko federazioa) emandako faktura edo ziurtagiria aurkeztuko da, kirol-klubak ordaindutako zenbatekoa jasotzen duenak egindakoa.</p> <p>Ziurtagirian edo fakturan honako hauek jasoko dira: zehaztutako kontzeptua, ordaindutako zenbatekoari dagokion denboraldia, zenbateko unitarioa, ordaindutako unitate-kopurua, ordaindutako prezioa edo zenbateko osoa.</p>
<p>BESTELAKO GASTUAK</p>	<p>Kirol-klubari emandako askotariko zerbitzuak, ibilgetuen edo izakinen erosketa-prezioan sartuta ez daudenak. Multzo honetako gastu esanguratsuenak hauek dira: errentamenduak, konponketak eta kontserbazioa, garraioak, aseguru-primak, etab.</p> <p>Horiek justifikatzeko, faktura edo banku-helbidearen ordainagiria aurkeztuko dira; bertan, legez ezarritako baldintzak betetzeaz gain, PFEZ atxikipenaren ehunekoa eta dagokion BEZaren ehunekoa jaso beharko dira.</p> <p>Diru-laguntza izan dezaketen komunikazio-gastutzat hartuko dira soilik kirol-klubaren izenean dauden telefono-linea finkoekin edo mugikorrekin lotutakoak, diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoak direnak.</p>

INBERTSIOAK	<p>Hemen sartzen da ondasun ukiezinen, higigarrien edo higiezinaren erosketa, horien izaera edo funtzioa dela-eta, normalean urtebetetik gora erabiltzen badira. Justifikazioa egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira, eta horiek kirol-klubaren zaintzapean eta ardurapean egongo dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Harrera-akta• Kirol-klubaren inbentarioan alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria edo dokumentua.• Gastuaren jatorrizko faktura.• Egindako ordainketaren jatorrizko ordainagiria.
--------------------	--